

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jesus Zufiria Iarza

*Oñati,
Gipuzkoa
(1929-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Garibai auzoko "Koixkar Garaikua" baserrian jaio zen. Ama bertakoa zen eta aita Aretxabaletako Goroeta auzoko Markietegi baserritik etorritakoa. Zortzitik hamabi urtera bitartean Sarramendiko eskolara joaten zen, eguraldi txarra zenean batez ere. Euskaraz berba egiten zuenean, maisuak beheko pagadira bidaltzen zuen, bere etxerako su-egur bila. Amarengandik jaso zuen artzaintza jakinduria, eta aitarengandik berriz ikazkintzakoa. Baso lanetan urte askoan jardundakoa da. Bizi guztia eman du baserrian. Anaia Felix ere egon zen elkarrizketan.

Zintak

ONA-119

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altuna Erle, Roberto - Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-05-05
- **Iraupena:** 101 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Medikuek ekartzen omen zituzten umeak

- **Erref:** ONA-119/001
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>1930. urteko Gabon zahar egunean jaio zen, Koixkar (Gorobizkar) baserrian. Orduan umeak medikuek ekartzen omen zituzten. Ama etxekoa zen, eta aita berriz Aretxabaletako Goroeta auzoko Markietegi baserritik etorritakoa.</p>

2. Eskola eta maisuen etxea bat zen

- **Erref:** ONA-119/002
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:02:24. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Sarramendiko eskola berrira joaten zen, baina euria zenetan bakarrik. Ikasleek babarrunak etxetik eraman, eta maisuak egosten zituen. Maisua eskolan bertan bizi zen. Gau-eskolak ere ematen zituen. Maisuak alde egin zuenean bukatu zitzaizkion eskolok.

3. Euskaraz egiteagatik zigorra

- **Erref:** ONA-119/003
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan euskaraz egiten bazuten, maisuak sutarako egur bila bidaltzen zituen beheko pagadira.

4. Militarrek etxe inguruetan

- **Erref:** ONA-119/004
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:06:38. **Bukatu:** 00:09:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran, gogoan du militarrek etxe inguruan egoten zirela, sasi artean arrastaka. Guardia Zibilak auzoko elizako kanpaiari tiroka ere ikusi zituen.

5. Militarrek eta Guardia Zibilak

- **Erref:** ONA-119/005
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:09:06. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Militarrekin oso harreman gutxi izan zuten baserritarrek. Legazpi, Zumarraga eta Antzuolatik etorri omen ziren Gorobizkarrera militarrok. Gerraostean Guardia Zibilek lapurretak egin omen zituzten auzoko baserrietan.

6. Mutikoak baserriko lanetan

- **Erref:** ONA-119/006
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:13:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Mutikotan itaurrean eta garia eta artoa ereiten jardundakoa da. Lehen lantzen ziren soro asko gaur pinudiak dira. Lizar abarrak moztu, sendorretan etxera ekarri eta itzuntzen (orriak kendu) zituzten, ganaduei emateko. Belarra gurdian edota sendorka ekartzen zuten.</p>

7. Idaurrarekin garia jotzen

- **Erref:** ONA-119/007
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:13:55. **Bukatu:** 00:16:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

13 urterekin Jesus auzorik auzo gari-ebakitzen ibiltzen zen. Gari jotzea babarrunak jotzeko idaurrarekin eskuz egiten ezagutu zuen. Geroago matxaka makina ekarri zuten.

8. Garia jotzen auzolanean

- **Erref:** ONA-119/008
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:16:42. **Bukatu:** 00:19:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Gari jotzeko makina modernoa ekarri zuten auzoko 14 baserriren artean. Etxerik etxe eramaten zuten gari jotzekoa, hiru idi parerekin. Ia bi egunetako lana izaten zen etxe bakoitzean. Gari jotzea auzolanean egiten zen.</p>

9. Gari-jotzea bekatu Santiago egunean

- **Erref:** ONA-119/009
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:21:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Santiago egun batean garia jo gabe utzi behar izan zuten, abadeak bekatua zela esan zuelako.</p>

10. Elurte handiak izaten ziren

- **Erref:** ONA-119/010
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:24:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Artoa erein eta ernetzen zenean, babarruna sartzen zuten ondoan. Soroan artoa eta garia txandatu egiten zituzten. Artoa bildu, eta abenduan garia ereiten zen. Eguraldiak sarritan atzeratzen zuen garia ereitea. Metrotik gorako elurteak normalak ziren garai hartan. Erbi ehizara joaten ziren elurretan.</p>

11. Larunbatetan baserría abade-etxe

- **Erref:** ONA-119/011
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:24:27. **Bukatu:** 00:27:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Elurte handietan jendea ez zen mezetara joaten. Orduan jaiko meza bi ematen zituzten, gazteentzako goizean goiz lehena. Abadea larunbatetan etortzen zen, eta Jesusen baserrian egin zuen lo 40 urtean. "Abadearen kuartoan" egiten zuen lo.</p>

12. Jesus ikazkin

- **Erref:** ONA-119/012
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:27:46. **Bukatu:** 00:29:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Jesus ikazkin ibili zen etxe inguruko basoetan. Egosteko egurra non eta nola ebaki eta prestatzen zuen azaltzen du.

13. Txondorrak zaintzen

- **Erref:** ONA-119/013
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:29:28. **Bukatu:** 00:33:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Txondorra nola egin eta sua nola ematen zion azaltzen du, baita lo egiten zuen txabola eta ohea nolakoak ziren ere. Hiruzpalau txondor batera egosten izaten zituen. Familia osoaren lana izaten zen.

14. Ikatza saltzen

- **Erref:** ONA-119/014
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:33:01. **Bukatu:** 00:35:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatza eginda zegoenean, zakuetan sartzen zuten. Karreteroek 18 zaku kargatzen zituzten gurdiko. Ikatza kaleko etxeetan banatzen zuten. Araozko Mantxuenak ere erosten zien, arkumeak erretzeko. 300 bat ikatz zaku betetzen zituzten urtean.

15. Ganaduak eta ardiak etxean

- **Erref:** ONA-119/015
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:35:59. **Bukatu:** 00:39:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Etxean ganadua, idiak eta ardiak zituzten. Artzaina ama zen, eta gero Jesusek berak jarraitu zuen ardiekin. Gazta asko ez zuten egiten.</p>

16. Gose garaian lapurrak baserrira

- **Erref:** ONA-119/017
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:41:46. **Bukatu:** 00:44:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gose garaian, Jesusek norbait artegitik arkumeak lapurtzen harrapatu zuen, eta eskopeta tiroz uxatu zuen. Errotak itxita zeudenean, garia eskuz ehotzeko makina bat erosi zuten.

17. Garia Antzuolako errotara

- **Erref:** ONA-119/018
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:44:21. **Bukatu:** 00:47:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Jesusek 30 urtez Antzuolako Azkarate errotara eramane zuen garia ehotzera. Antzuolan garia ehotzea auzoko errotan baino merkeagoa omen zen. Gerraostean Antzuolara gauez joaten zen errotara.</p>

18. Lapurra irten zitzaion bidera

- **Erref:** ONA-119/019
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:47:54. **Bukatu:** 00:50:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Antzuolatik bueltan zetorren gau batean, bidean lapurra irten zitzaion. Lapur hori jo eta etzan zuen, eta hanka egin ahal izan zuen.

19. Behorak eta erleak baserrian

- **Erref:** ONA-119/020
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:50:02. **Bukatu:** 00:53:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Pinuak landatzen lan asko egin zuen Jesusek. Behi gorotza urarekin nahastuta erabiltzen zuten landara gazteak abereengandik babesteko. Behorak eta erleak ere bazituzten baserrian.</p>

20. Piztiak harrapatzen trebea

- **Erref:** ONA-119/021
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:53:33. **Bukatu:** 00:55:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Ugaztunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Azeri, basakatu, azkonar eta beste piztia batzuk harrapatzen trebea da Jesus. Garai batean, azeri buztan bakoitzagatik 1.000 pezeta ematen zuten. Elur sasoian harrapatzen zituzten piztiok gehienetan. Pozoia ere erabiltzen zuten. Piztiak bizirik harrapatzeko era azaltzen du.</p>

21. Piztiak erakutsi eta saria jaso

- **Erref:** ONA-119/022
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:55:48. **Bukatu:** 00:58:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Piztia harrapatu eta gero, piztia bizkarrean hartuta etxerik etxe ibiltzen ziren, dirua jasotzen. Oñatiko Pagouso elkarteak azeri buztan bakoitzagatik 1.000 pezeta ematen zituen. Oilagorrak nola ehizatzen zituen azaltzen du.</p>

22. Baserritarren Ermandadea

- **Erref:** ONA-119/024
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:59:58. **Bukatu:** 01:03:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Baserri batzuen artean antolatutako Ermandadea zuten auzoan. Txandaka izaten zuten "puestoko idiskoa" (hazitarakoa). Ganaduren bat galtzen zenean, Ermandadeak ugazabari laguntzen zion. Koixkarrera (Gorobizkar) behi asko ekartzen zituzten idiskotzera. Bost ogerleko kobratzen ziren estaltzeko.</p>

23. Auzotar ezagunak

- **Erref:** ONA-119/027
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:06:15. **Bukatu:** 01:08:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Domingo Askazubi, Maurizio artzaina, Asakazubiko Joxepa eta Bixentaren ama antzuolarraren kontuak.

24. Anaiak soinujoleak

- **Erref:** ONA-119/028
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:08:18. **Bukatu:** 01:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Jesusen anaiak, Joxe Marik eta Pedrok, soinu zahar batekin euren kasa ikasi zuten soinua jotzen. Gero Santa Ageda batzen eta erromerietan jotzen zuten soinua.

25. Gorobizkar, Garibai eta Aurrekomendia

- **Erref:** ONA-119/029
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:09:10. **Bukatu:** 01:10:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Nahiz eta oñatiarrentzat Koixkar (Gorobizkar) eta bere Ermandadeko baserri guztiak "Aurrekomendia"n egon, "Aurrekomendia" ez da auzo bat. Hiru auzotako zatiak daude bertan: Larrañaga, Zubillaga eta Garibaikoak hain zuzen ere. Koixkar Garibai auzokoa da.

26. San Balandran erromeria Azalditan

- **Erref:** ONA-119/030
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 01:10:26. **Bukatu:** 01:13:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Auzoko jaiak Corpus Egunean zortzigarrenean ospatzen dituzte. Azalditako zelaian San Balandran erromeria ezaguna ospatzen duen Antzuola, Bergara, Oñate eta Legazpiko jendeak. Hiru dantzari korro egoten ziren, eta borrokak ere izaten ziren.</p>

27. San Balandran jaia abuztuan

- **Erref:** ONA-119/031
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:13:52. **Bukatu:** 01:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

San Balandran egunean Koixkarretik Larrañaga auzoko Antzuelas baserrira joaten ziren konbidatuta. Abuztuaren 20an ospatzen zen San Balandran. Gaur egun Lizargaraten ospatzen da egun hori.

28. Esaerak

- **Erref:** ONA-119/032
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:15:55. **Bukatu:** 01:18:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

<p>Adar azala eta adar azala botatzea zer den azaltzen du. Beste esaera batzuk.</p>

29. Habaila eta txorikumeak

- **Erref:** ONA-119/033
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:18:12. **Bukatu:** 01:21:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Jesusen anaia Felixek "habraillia" (habaila) nola erabiltzen den azaltzen du. Txori habiak bilatzen zituzten, eta txorikumeak handiak zirenean, harrapatu eta etxera ekartzen zituzten, jateko.</p>

30. Jolasak eta eliza kontuak

- **Erref:** ONA-119/034
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:21:41. **Bukatu:** 01:24:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Mutikotan txirikiletan jolasten zuten. Elizpean pilotan ere bai. Jaietan goizean

mezara eta arratsaldean arrosarioa errezatzen joaten ziren. Garizuman berriz, arrosario ostean kalbarioa egiten zuten eliza barruan.

31. Arta-zuritzea auzolanean

- **Erref:** ONA-119/035
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:24:32. **Bukatu:** 01:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Arta-zuritzen auzolanean egiten zuten; ilunkaran hasi eta gauean berandu bukatzen zuten. Danbolinean erretako gaztainak jan, esne katilukada bana edan eta bakoitza bere etxera joaten zen.</p>

32. Arta-zuritzen berandura arte

- **Erref:** ONA-119/036
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:27:40. **Bukatu:** 01:29:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Ilundu arte artoa sartzen jarduten zuten, gero afaldu eta arta-zuritza joateko. Gau erdian gaztaina erreak jan, esnea edan eta etxera. Etxe bakoitzetik pitxerkada bana esne eramaten zuten. Bost baserritako dozena bat lagun elkartzen ziren auzolanean.</p>

33. Gari-ebakitzea auzolanean

- **Erref:** ONA-119/037
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:29:24. **Bukatu:** 01:31:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Gari-ebakitzea auzolanean egiten zuten. Beste auzo batzuetara ere joaten ziren garia ebakitzera, igitaiaekin. Behe aldeko baserrietan lehenago heltzen zen garia. Gaur egun auzolana ezkutatuta dagoela diote anaia biek.</p>

34. Ira-lekuak pinudi bihurtuta

- **Erref:** ONA-119/038
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:31:58. **Bukatu:** 01:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Baso bideak auzolanean zaintzen ziren. 40 ira-gurditik gora ekartzen zituzten urtero etxera. Orduko ira-lekuak gaur egun pinudiak dira.

35. Ganadua basoko larrera

- **Erref:** ONA-119/039
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:33:42. **Bukatu:** 01:35:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ganadua egunez basora bidali, eta ilunkaran bila joaten ziren etxeratzeko. San Migel inguruan, ganadua zelaietako bibelarretara eramaten zuten. Lizar hostoa ere orduan biltzen zen.

36. Auzoko eliza auzolanean eraikia

- **Erref:** ONA-119/040
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:35:51. **Bukatu:** 01:38:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Auzoko eliza Jesusen aitak eta beste zenbait auzotarrek auzolanean egindakoa da. 1925. urtean eraiki omen zen eliza hori. Eltzikorta baserrian bizi zen amerikarrak dohainik bota omen zion zorua elizari.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com